



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduak 11

Vitoria-Gasteiz, 11 de diciembre de 2018

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK ARGENTINAKO ETA PERUKO BESTE BI EUSKAL ETXE SARTUKO DITU EUSKAL ETXEEN ERROLDAN; 193 IZANGO DIRA GUZTIRA

Jaurlaritzaren Kontseiluak beste bi euskal etxe onartu ditu –“Asociación Civil Centro Vasco De General Belgrano”, Argentinakoa; eta “Centro Cultural Vasco Peruano de Trujillo”, Perukoa, hain zuzen– eta euskal etxeen erregistro ofizialean sartuko ditu. Guztira, 193 euskal etxe izango dira, horrela, munduan zehar.

Euskal Etxeak irabazi asmorik gabeko erakundeak dira, formalki eratutakoak eta EAEko lurraldetik kanpo daudenak, eta Euskadirekiko harreman kultural, sozial eta ekonomikoei eta Euskadiren historia, hizkuntza eta kulturari eustea dute helburu.

Eusko Jaurlaritzak ofizialki erregistratutako euskal etxeak 193 dira mundu osoko 25 herrialdetan. Jaurlaritzaren Kontseiluak Argentinako “Asociación Civil Centro Vasco De General Belgrano” euskal etxea onartu ondoren, herrialde horrek ditu euskal etxe gehien munduan: 85. “Centro Cultural Vasco Peruano de Trujillo” euskal etxea onartuta, Peruk hirugarren euskal etxea erregistratuko du.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK 23 MILIOI EUROKO PARTIDA ONETSI DU, GIZARTE-LARRIALDIKO EGOEREI ERANTZUTEKO

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaur egin duen bileran, baimena eman du **23 milioi euro bideratzeko 2019an gizarte-larrialdiko egoerei erantzutera.**

“**Gizarte Larrialdiko Laguntzen (GLL)** helburu nagusia **bazterketa-egoerak arintzea da**, horiek arlo pertsonalekoak, gizarte-arlokoak edo lan-arlokoak izan. Gastu bereziei –gastu arruntak eta apartekoak– erantzuteko baliabide nahiko ez duten bizikidetzaren unitateentzako prestazioak dira eta ez dira aldizkakoak”, esan du Beatriz Artolazabalek.

GLLak Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legean (abenduaren 23ko 18/2008) aurreikusitako prestazio ekonomikoetako bat dira, eta marjinazio sozialeko egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko. Gainera, Gizarte Larrialdiko Laguntzak Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren barruan sartzen dira; plana 2017tik 2021era dago indarrean

Gaur Eusko Jaurlaritzak onetsitako Aginduak 2019. urterako Gizarte Larrialdiko Laguntzetan aurreikusitako gastu berezi bakoitzerako gehieneko kopuruak ezarri ditu. Gainera, horiek estaltzeko esleitutako kredituen banaketarako irizpideak adierazi eta lurralde historiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal bakoitzari dagokion aurrekontu-muga ezarri du. Kopuruak direla eta, aurreko ekitaldiko kontzeptuaren arabera gehienekoei eusten zaie.

Enplegua eta Gizarte Politikak

4,79 MILIOI EURO GIZARTEAN ESKU HARTZEKO EREMUAN HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK SUSTATZERA

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaur, 4,79 milioi euroko partida gizartean esku hartzeko eremuan hirugarren sektoreko **jarduerak sustatzera** bideratzea onetsi du.

Laguntza-mota horiek abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan arautzen dira, eta pertsona, familia eta taldeen **autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa babestera eta sustatzera bideratutako jarduerak finantzatzen** laguntzen dute.

“Gizarte Zerbitzuez gainera, ekintza-mota horiek **gizarte-inklusioaren eremuan, familiaren babesaren eta haur eta nerabeentzako arretaren eta babesaren eremuan kokatzen dira**. Era berean, etorkinen integratzera eta, oro har, kulturartekotasunera, adinekoen, mendekotasun-egoeran daudenen eta desgaitasunen bat dutenen arreta eta babesera eta askatasun eta aniztasun afektibo-sexualera bideratzen dira”, esan du Beatriz Artolazabalek.

Diru-laguntzen lehenengo lerroak pertsona, familia, talde eta erkidegoekin **gizartean esku hartzeko** jarduerak aurreikusten ditu. Laguntza horiei bide emateko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, 2019an, 3.743.480 milioi euro bideratuko ditu.

Bigarren lerroa gizartean esku hartzeko **ekintza boluntarioa eta elkarten parte-hartzea sendotzeko** jarduerak diruz laguntzera bideratuko da. Atal horren barruan, finantzaketa izan ahalko dute ekintza boluntarioa eta elkarten parte-hartzearen garapena areagotzeko jarduerak: zehazki, erakundeak, sareak edo federazioak sortu eta hobetzeko ekintzak. Laguntzen kapitulu honek 599.000 euroko zuzkidura du.

Hirugarren lerroa 450.000 euroekin finantzatuko da eta, horren bidez, gizartean esku hartzeko **ezagutza eskuratzera eta ekoiztera bideratzen diren jarduerak** finantzatu nahi dira, besteak beste: prestakuntza-programak, ikerketa-proiektuak, argitalpenak prestatu eta zabaltzea, dokumentazioarekin zerikusia duten jarduerak eta ekitaldi teknikoak, esaterako, ikastaro eta mintegiak.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK ONARTU EGIN DU EUSKADIN FAMILIA-HARRERA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, dekretua onetsi du; horren bidez, **foru-aldundiek** beren tutoretzapean edo zaintzan dauden adingabeei familia-harrera egiteko prozeduretan **jarraitu beharreko familia-harreraren modalitateak eta jarduketa-prozedura arautu dira**.

Neurri horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Haur eta Nerabeei Arreta eta Babesa emateko Legea (otsailaren 18ko 3/2005) garatu du, araudiari dagokionez, familia-harreraren arloan; izan ere, Dekretuaren helburua haren **arauketa** da.

Lege horrek babes-neurria familia-harreraren oinarritzen du, eta familia-harreraren **modalitateak** zehazten ditu; horretarako, gaiaren inguruan Kode Zibilean jaso diren xedapenetara jotzen du. Gainera, abegi-familien egokitasuna zehazteko gertakariak balioestean jarraitu beharreko prozedura-urratsak ezartzen ditu. Halaber, familia-harrera formalizatzeko prozedurara jotzen du, neurria aplikatzean eta zehaztean gutxieneko bateratasuna izateko. Azkenik, zenbait xedapenetara jotzen du, familia-harreraren neurria eteteari eta familia-harreraren laguntzari eta ikuskaritzari dagokienez.

Gaia arautzen duen dekretu berezirik ez dagoenez, ezin izan da aurrera egin, orain arte, batera eta paraleloan hiru lurralde historikoetan eta, ondorioz, horrek hutsune juridikoa eragin du irizpideak, jarraibideak eta prozedura-urratsak zehazteko eta ezartzeko.

Hori guztia beharrezkotzat jotzen da foru-aldundiek beren tutoretzapean edo zaintzan dauden adingabeen familia-harrera egiteko prozedura osoan garatu beharreko jarduketa eta faseak **argitze**ko, bai hartutako familia-harrerarako neurria formalizatu aurretik, bai hura indarrean dagoen bitartean eta amaitzean.

Dekretu berriak Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osorako aplikagarria den **araudi-testu bakar**rean jaso du haur eta nerabeei arreta eta babes emateko lege-araudian –estatukoan eta autonomikoan– jasotako familia-harreraren neurriari buruzko xedapenen garapena.

Arau hura prestatzeko, kontuan izan da **hiru foru-aldundiek honako arlo hauetan duten esperientzia**: familia-harrerarako eskaintzen diren pertsonen egokitasunaren azterketa eta balioespena; harrera jasotzen duen adingabeari, abegi-pertsonari edo familiari eta jatorrizko familiari berari aholkularitza, prestakuntza eta laguntza emateko neurri, programa, baliabide eta zerbitzuak ematen; eta adingabeari harrera emateko egokientzat jotzen diren abegi-pertsonak hautatzeko egiten diren jarduketetan, horien egoera bereziak aintzat

hartuta, bai eta umearen edo nerabearen interes nagusia aintzat hartuta egokientzat jotzen den familia-harrerarako neurria formalizatzeko jarduketetan ere.

Familia-harrerak, familia-harreraren iraupena eta helburuak aintzat hartuta, honako modalitate hauek izan ditzake:

- **Premiazko familia-harrera**, nagusiki sei urtetik beherako pertsoneri zuzenduta, dagokion familia-babeseko neurria erabaki bitartean. Harrera-modalitate hori ezingo da izan, inolaz ere, sei hilabete baino luzeagoa.
- **Aldi baterako familia-harrera**; zeharkakoa izango da, dela adingabearen egoeraren arabera bere familian bertan berrintegratzea aurreikusten delako, dela egoera egonkorragoa ekarriko duen babes-neurria hartu bitartean, besteak beste, familia-harrera iraunkorra edo adopzioa. Harrera-modalitate horren gehieneko iraupena bi urtekoa izango da, umearen edo nerabearen interes nagusia dela-eta neurria berehalako familia-berrintegrazioarekin edo behin betiko beste babes-neurri bat hartzearekin luzatu behar bada salbu.
- **Familia-harrera iraunkorra**; aldi baterako harreraren bi urteko epea amaitzean sortuko da, familian berrintegratzea ezinezkoa dela egiaztatu ondoren edo zuzenean premia bereziak dituzten adingabeen kasuetan edo adingabearen eta bere familiaren egoera aintzat hartuta hala dagokionean. Foru-aldundiek epaileari eskatu ahalko diote abegi-pertsona edo -familia iraunkorrei beren erantzukizunak betetzeko tutoretzako eskumenak esleitzeko, betiere umearen edo nerabearen interes nagusia aintzat hartuta.

Gainera, adingabeak abegi-pertsonarekin edo -famieliarekin duen **lotura** eta horiek dituzten ezaugarriak aintzat hartuta, harrera honako modalitate hauetan egin ahalko da:

- Adingabearen familia **zabalean**, abegi-familiaren edo -pertsonaren eta adingabearen artean ahaidetasun-harremana dagoen kasuetan.
- **Besteren** familian; bertan, familia zabaleko harrera-modalitatean ez dauden kasu guztiak jasoko dira.

Nolanahi ere, besteren familian egiten den harrera espezializatua eta profesionalizatua izan ahalko da, betiere Dekretu honetan aurreikusten diren gertakariak eta eskakizunak betetzen badira. **Familia-harrera espezializatutzat** jotzen da besteren familia batean gertatzen dena eta bertako kideetako batek premiak dituzten edo gertakari bereziak bizi dituzten adingabeei dagokienez eginkizun hori betetzeko goi-mailako prestakuntza, esperientzia eta prestakuntza berezia duenean. Dekretua hamahiru kapitulutan egituratzen da, eta, horiez gainera, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat ditu.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

GOBERNUAK LEGEBILTZARRARI 2017KO ETXEBIZITZA POLITIKEN EBALUAZIO INTEGRALAREN TXOSTENA BIDALI DIO

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Iñaki Arriola sailburuak aurkeztu duen 2017ko Etxebizitza Politiken Ebaluazio Integralaren txostena ezagutu du, eta hura Eusko Legebiltzarrari bidaltzea erabaki du. Dokumentuak 120 orrialde ditu eta, bertan, indarreko plan estrategikoan ezarritako helburu, ildo estrategiko eta jarduketan urteko betearazpen-mailaren analisi xehatua jaso du.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Euskal Etxebizitzako Behatokiaren bidez garatzen duen zenbaketa hori, gaur egun, estatu-mailan etxebizitza-politikak ebaluatzeko dagoen gailu bakarra da. Urtero prestatzen da, Etxebizitzako Plan Gidarietan ezarri bezala (lau urtez behingoak), eta helburua da politika horiek etengabe hobetzea, eta herritarrei eta eremu horretan diharduten eragileei emaitzen berri ematea.

Dokumentuak sintetikoki jaso ditu 2017ko etxebizitza-politiken ebaluazio integralaren emaitzak eta, zehazki, ekitaldi horretako Etxebizitza Programarenak, eta azken bost urteotan eskuratutako emaitzen laburpena jaso du. Hori horrela, etxebizitzak alokatzeko eta birgaitzeko sustapena ebaluatutako ekitaldian esku hartzeko lehentasunezko lerroetako bat izan zen, azken atzeraldi ekonomikoaren ondoriozko eraginak, oraindik ikus daitezkeenak, geldiro gaintzen ari ziren ingurunean.

Aldi berean, 2015eko Etxebizitza Legea martxan jarri eta garatzeak eragin erabakigarria izan du eremu horretako euskal estrategian; arreta- eta azterlan-foku berriak adierazi ditu, eta eskakizun eta betekizun berriak zehaztu ditu, etxebizitzaren gizarte-eginkizunaren arabera.

2017ko Etxebizitzaren Politiken Ebaluazio Integralaren Txostenaren eduki osoa, Legebiltzarrera bidali ondoren, Euskal Etxebizitzako Behatokiaren webgunean egongo da eskuragarri.

Hezkuntza

6 MILIOI UDALENTZAKO DIRU-LAGUNTZATAN, IKASTETXEETAN HOBKUNTZAK EGITEKO (UDALAGUNTZA-2018)

- **Udalaguntza deialdiaren bidez 260 obra finantzatu ziren iaz, udal titulartasuneko eraikinetan kokaturik dauden 170 ikastetxetan**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Udalaguntza-2018 izenez ezagutzen den diru-laguntza deialdia. Deialdi honen bidez, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udal jabegoko eraikinetan obrak egiteko diru-laguntzak ematen dira. Deialdi honek 6 milioi euroko diru-kopurua du.

Udalaguntza-2018 deialdian parte hartu ahal izango dute aurrerago aipaturiko ezaugarriak betetzen dituzten ikastetxeak kokaturik dauden eraikinen titular izan eta haietan hobekuntza lanak egiteko proiektuak aurkezten dituzten Euskadiko udalek. Agindu honen bidez finantzatu daitezkeen obrak 2018ko urtarrilaren 1 eta 2019ko abuztuaren 31 bitartean hasi beharko dira eta 2019ko abenduaren 31 baino lehenago bukatuak egon behar dute.

Hezkuntza Sailak deialdi honen bidez emango duen diru-laguntza balorazio-batzordeak onarturiko aurrekontuaren %60koa izango da. Gainerako %40 proiektua aurkeztu duen udalaren gain izango da. Eskatera bakoitzeko gehienezko kopurua, dena den, 360.000 eurokoa izango da. Hortaz, balorazio-batzordeak onartutako 600.000 euro baino gehiagoko aurrekontuak dituzten eskaerei diru-laguntza ematen bazaie, muga hori hartuko da kontuan.

Irisgarritasun lanak

Ikastetxeen irisgarritasuna hobetzeko lanak izan ohi dira sarritan deialdi honen bidez diruz laguntzen direnak, edo baita eraikin horien instalazioak eguneratu edo egokitzeko lanak ere, hala nola: kanpo nahiz barne arotzeria aldatzea; fatxada eraberritzea; patio eta jolastokietan zorua berritzea; eraginkortasun energetikoa hobetzeko jarduketak; espazioak birbanatzea; teilatu konponketak; instalazio elektrikoak eguneratzea; komunak eta saneamenduak konpontzea; edo berogailu sistema aldatzea, beste hamaika motatako lanekin batera. Guztiak ere irakaskuntzaren kalitatean modu zuzen zuzenean eragiten duten jarduerak izan ohi dira. Nola nahi, ez dira deialdi honen bidez finantzatuko lehen ezarpeneko lanak, ezta kontserbazioko eta mantentze obrak ere.

Udalaguntza deialdiaren sorrera, ikastetxeen instalazioetan hobekuntza eta eguneratze lanak burutzeko Hezkuntza Sailaren eta tokiko erakundeen arteko koordinazioan aurkitzen da. Elkarlan horri esker, gainera, baliabide publikoen optimizazioa eta administrazio bakoitzak egiten dituen ahalegin eta jarduketan eraginkortasun handiagoa ere lortzen dira.

2018ko Udalaguntza deialdian parte hartu nahi duten udalek hilabeteko epea izango dute proiektuak aurkezteko –eskatzen den dokumentazioarekin batera-, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Iazko Udalaguntza deialdiaren bidez (Udalaguntza 2017) 260 obra finantzatu zituen Hezkuntza Sailak, Euskadiko 87 udalerritan kokaturiko Haur eta Lehen Hezkuntzako 170 ikastetxe publikotan.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 40.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA ZUZENA ONARTU DU Ttap EUSKARAZKO ALDIZKARI DIGITALARENTZAT

- **Euskarazko tokiko komunikabideak biltzen dituen Tokikom sareak jarri du martxan produktu berritzaile hau**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 40.000 euroko diru-laguntza zuzena onartu du, bere gaurko saioan, Tokikom enpresarentzat, Ttap euskarazko aldizkari digitalaren sorrera diruz laguntzeko. Tokikomek euskarazko tokiko komunikabideak biltzen ditu eta Ttap aldizkariaren bidez produktu berritzaile bat abian jarri du.

Ttap aldizkari digital berriak ikusteko, entzuteko eta irakurtzeko edukiak eskaintzen ditu, eskuko telefonoen eta tableten bitartez. Tokikometik adierazi dutenez, helburua da “minutu asko izan gabe ere ordu laurden batean goitik behera ikusteko aldizkaria eskaintzea”. “Edukiari dagokionez, gertuko gaiak landuko ditu, modu azkar eta erosoan kontsumitzeko moduan. Hamasei orrialde edo pantaila izango ditu eta ordu laurdenean irakurri ahal izango da. Edukietan sakondu nahi duenak beti izango du horretarako aukera, landutako audio eta bideo piezen bidez”, azaldu dute Tokikometik.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren iritziz, euskararen erabilera sustatzeko bidean lehentasuna da euskarazko hedabideak sustatzea eta euskal hiztunei eduki erakargarriak eskaintzea. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren politiketan funtsezkoa da euskara ingurune digitalean indartzea.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 20.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA ZUZENA ONARTU DU GALTZAUNDI ELKARTEARENTZAT, TOLOSALDEAN EUSKARAREN ALDEKO PROIEKTUAK GARA DITZAN

- **Laguntza horren bitartez eskualdeko euskalgintzaren antolaketa bultzatuko du eta Euskararen Mahaia eratuko du**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 20.000 euroko diru-laguntza zuzena onartu du, bere gaurko saioan, Galtzaundi euskara taldearentzat, 'Tolosaldeko Euskalgintzaren eskualdetze prozesua: antolaketa, eragin esparruak eta Tolosaldeko Euskararen Mahaia' izeneko programa gara dezan. Elkarte horren helburua da euskararen egoera eskualdean indartzea eta, horretarako, funtsezkotzat jo dute programa hori sustatzea.

Galtzaundi elkarteak bi egiteko nagusi finkatu zituen 2018rako: Galtzaundiren Euskara Taldearen eskualdetzea eta berregituraketa sustatzea eta, bigarenik, Tolosaldeko Euskararen Mahaia eratzea. Gobernu Batzordeak onartu duen diru-laguntzaren helburua da, hain zuzen ere, zeregin horiek diruz laguntzea.

Galtzaundi Euskara Taldeak hausnarketa bat abian jarri zuen, 2016an, Tolosaldeko orduko egoeraz hitz egin eta etorkizuneko helburu eta estrategiak finkatzeko. Gogoeta horietatik abiatuta, 2017an proiektu pilotua abian jarri zen: 'Tolosaldeko euskalgintzaren eskualdetze prozesua: antolaketa, eragin esparruak eta Tolosaldeko euskararen mahaia'. 2018rako finkatutako helburuak hauexek izan dira:

- Tolosaldea, euskararen arnagune: Izaera hori bermatzeko hizkuntza politikak bultzatzea eskualdean.
- Galtzaundi Euskara Taldea Tolosaldeko 28 herrietan egituratzea: herriz herri, elkarren arteko harremanean eta modu eraginkorren antolatuta.
- Eragileen arteko elkarlana: Tolosaldean euskalgintzan diharduten agenteen (erakunde publiko edo gizarte eragile antolatu), bilgunea eratzea eta, bertan, euskararen aldeko eskualde mailako hizkuntza politika lerroak adostea, eta bakoitzaren egitekoak eta koordinazio ildoak finkatzea.
- Izaera desberdineko erakunde desberdinen arteko lankidetzaren ereduaren lantzea eta saiatzea.
- Aurreko ildo horien jarduna eraginkorragoa izateko egituraketa iraunkorra aztertzea.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 10.000 EUROKO KONTU-SAILA ONARTU DU KUARTANGOKO ANTZOKI BAINUETXEA EGOKITZEKO LANAK DIRUZ LAGUNTZEKO

- **XIX. mendearen amaierako eraikin bat da eta bere eragin-eremua Añanako kuadrilla osora zabaltzen da, kontuan izanik bertan ez dagoela antzeko dotaziorik**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 10.000 euroko diru-laguntza onetsi du, bere gaurko saioan, Kuartangoko Antzoki Bainuetxea egokitze lanak, partzialki, finantzatzeko. Kultur dotazio hau bultzatzea da diru-laguntza honen helburua, kontuan izanik bere eragin-eremua Añanako kuadrilla osora zabaltzen dela, non ez baitagoen antzeko kultur ekipamendurik.

Kuartangoko Udala da instalazio publiko honen titularra, eta Zuhatzu-Kuartangoko Bainuetxe Zaharra bezala ezagutu izan da historian zehar. XIX. mendearen amaierako eraikin bat da, eta 2015az geroztik berritze-lan desberdinak egin izan dira bertan. Antzokiarena izan da barnealdean egin den aurreneko egokitze-lanetako bat. Dena den, beste hainbat lani ekin behar izango zaio arte eszenikoetako kultur jarduerak garatzeko erabili ahal izateko.

Udalak 14.600,00 euroko (gehi BEZ) gastuen aurrekontua aurkeztu du espazio hori egokitze lanak finantzatzeko. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak partzialki ordainduko ditu egokitze-lanak, 10.000 euroko diru-laguntzaren bitartez.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ONDAREA SARIAREN DATORREN EDIZIOA ABIAN JARRI DU EUSKO JAURLARITZAK, KULTURA ONDAREAREN BALIOA GAZTEEN ARTEAN NABARMENTZEA HELBURU DUEN EKIMENA

- **Proiektuan parte hartzen duten ikasle-taldeek 3 eta 10 minutu bitarteko bideoak egin behar dituzte gai honi buruz**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak bere gaurko saioan agindu bat onetsi du, Kultura Ondarea Saria ekimenaren deialdia egin eta arautzen duena. Ekimena, berrikuntza, ekintzailtza, sormena eta hezkuntza-jardueraren garapen soziala sustatzea da sari honen helburua, Euskal Kultura Ondarea ezagutu eta balioesteko, adierazpide orotan, materiala zein immateriala izan. Sari hau antolatzen zuzendutako aurrekontua 30.000 eurokoa da.

Kultura Ondarea Sariaren datorren edizioa, 2019koa, bosgarrena izango da, eta bere helburuen artean daude:

- Euskal Kultura Ondareari buruzko ezagutza ikertu, berreskuratu eta eraikitzeke egiten den ahaleginaren aintzatespena eta kultura berritzailea sustatzea.
- Euskal Kultura Ondarea ezagutzera ematea, Euskal Hezkuntza Sistematik eta Sistemarentzat.
- Hezkuntzako ekimen berritzaileak abian jartzeko babesa ematea.
- Euskal Kultura Ondareari lotutako ezagutza balioesteko eta eraikitzeke gazteriak betetzen duen zeregina aintzat hartzea.
- Gazteek tresna teknologikoak erabili ditzaten sustatzea kulturaren eta hezkuntzaren arloko edukiak sortzeko.

Proiektu honetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleek, Batxilergoko 1. mailakoek eta Erdi Mailako Heziketa Ziklokoek parte hartzen dute. Proiektuan parte hartzen duten taldeek 3 eta 10 minutu bitarteko bideoak sortu behar dituzte. Ikasleek kontakizun bat landu behar dute gai espezifiko baten inguruan eta horretarako ikus-entzunezko teknikak erabili behar dituzte, taldean lan eginez eta ondarearen gaineko ikuspegi berritzaile bat eskainiz.

2018ko edizioan ikastetxe hauetako ikasleek jaso zuten saria: Barakaldoko Minas Institutua, Maristak Durango Ikastetxea eta, azkenik, Donostiako Bidebieta Institutua. Gainera, Maristak Ikastetxeak sari berezia jaso zuen bideo gehien bidali zuen ikastetxea izateagatik. Irabazleek bidaia bat egin zuten Napolira sari gisa.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO INCORPORA DOS NUEVOS CENTROS DE ARGENTINA Y PERÚ AL CENSO DE LAS “EUSKAL ETXEAK” SUMANDO UN TOTAL DE 193

El Consejo de Gobierno ha reconocido como Centro Vasco o Euskal Etxea a la “Asociación Civil Centro Vasco De General Belgrano” (Argentina) y al “Centro Cultural Vasco Peruano de Trujillo” (Perú). Estas entidades pasarán a formar parte del Registro oficial de centros vascos que suman así 193 eskal etxeak alrededor del mundo.

Los Centros Vascos-Euskal Etxeak son entidades sin ánimo de lucro formalmente constituidas y radicadas fuera del territorio de la CAPV destinadas al mantenimiento de lazos culturales, sociales y económicos con Euskadi, así como su historia, lengua y cultura.

Los centros registrados oficialmente por el Gobierno Vasco suman un total 193 establecidas en 25 países del planeta. El Consejo de Gobierno ha dado luz verde a la incorporación del centro “Asociación Civil Centro Vasco De General Belgrano” en Argentina, país con la mayor concentración de Euskal Etxeak del mundo (85). Con la suma del “Centro Cultural Vasco Peruano de Trujillo”, Perú obtiene su tercer centro vasco.

Empleo y Políticas Sociales

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA PARTIDA DE 23 MILLONES DE EUROS PARA ATENDER SITUACIONES DE EMERGENCIA SOCIAL

A propuesta de la consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, en su reunión de hoy el Consejo de Gobierno ha autorizado un **desembolso de 23 millones de euros para atender situaciones de emergencia social en 2019.**

“El objetivo principal de las Ayudas de **Emergencia Social (AES)** es **paliar situaciones de exclusión**, tanto personal, como social y laboral. Son prestaciones no periódicas para unidades de convivencia cuyos recursos resultan insuficientes para hacer frente a gastos específicos, tanto de carácter ordinario como extraordinario” detalla la Sailburu Beatriz Artolazabal.

Las AES constituyen una de las prestaciones económicas contempladas en la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, de Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, destinadas a prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social. Además, las Ayudas de Emergencia Social forman parte del IV Plan Vasco de Inclusión, vigente de 2017 a 2021

La Orden aprobada hoy por el Ejecutivo vasco establece para el año 2019 las cuantías máximas para cada uno de los gastos específicos contemplados en las Ayudas de Emergencia Social. Además, señala los criterios para la distribución de los créditos consignados para su cobertura y fija el límite presupuestario que corresponde a cada uno de los Territorios Históricos y Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En cuanto a las cuantías, se mantienen las máximas por concepto del ejercicio anterior.

Empleo y Políticas Sociales

4,79 MILLONES DE EUROS PARA FOMENTAR ACTIVIDADES DEL TERCER SECTOR EN EL ÁMBITO DE LA INTERVENCIÓN SOCIAL

A propuesta de la Consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, el Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una partida de 4,79 millones de euros para **fomentar actividades del tercer sector** en el ámbito de la intervención social.

Este tipo de ayudas que están reguladas por el decreto 271/2012, de 4 de diciembre, **contribuyen a financiar actividades orientadas a proteger y promover la autonomía personal**, así como la integración comunitaria de las personas, familias y grupos.

“Además de los Servicios Sociales, este tipo de acciones se enmarcan en el ámbito de la **inclusión social, la protección de la familia y la atención y protección a la infancia** y la adolescencia. Igualmente, se dirigen a la integración de las personas inmigrantes, y en general, la interculturalidad, la atención y protección a las personas mayores, en situación de dependencia y discapacidad, y la libertad y diversidad afectivo-sexual” especifica Beatriz Artolazabal.

Una primera línea de subvenciones contempla actividades de **intervención social** con personas, familias, grupos y comunidades. Para la cobertura de estas ayudas, el Departamento de Empleo y Políticas Sociales destinará, en 2019, 3.743.480 euros.

Una segunda línea se dirige a subvencionar actividades para el **fortalecimiento de la acción voluntaria y la participación asociativa** en la intervención social. Dentro de este apartado podrán recibir financiación las actividades orientadas al incremento de la acción voluntaria y el desarrollo de la participación asociativa: en particular, las acciones dirigidas a la construcción y mejora de entidades, redes o federaciones. Este capítulo de ayudas está dotado con 599.000 euros.

Una tercera línea, financiada con 450.000 euros, pretende financiar **actividades orientadas a la producción y adquisición de conocimiento** útil para la intervención social, tales como programas formativos, proyectos de investigación, elaboración y difusión de publicaciones, actividades relacionadas con la documentación y eventos de carácter técnico, como cursos y seminarios.

Empleo y Políticas Sociales

EL CONSEJO DE GOBIERNO DA LUZ VERDE AL DECRETO QUE REGULA EL ACOGIMIENTO FAMILIAR EN EUSKADI

A propuesta de la consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, el Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy un decreto por el que **se regula las distintas modalidades de acogimiento familiar, así como el procedimiento de actuación que deberán seguir las Diputaciones Forales** en los procedimientos de acogimiento familiar de personas menores de edad que se encuentren bajo su tutela o guarda.

Con esta medida, el Departamento de Empleo y Políticas Sociales desarrolla normativamente la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia en materia de acogimiento familiar ya que el Decreto tiene por objeto su **regulación**.

Esa Ley conceptúa la medida de protección consistente en el acogimiento familiar y determina las **distintas modalidades** de acogimiento familiar, remitiéndose a tal efecto a las disposiciones contenidas en la materia en el Código Civil; establece distintas pautas procedimentales en relación a la valoración de las circunstancias determinantes de la adecuación de las familias acogedoras, y al procedimiento de formalización del acogimiento familiar, con el objeto de alcanzar una mínima uniformidad en la aplicación y determinación de la medida; y, finalmente, contempla diversas disposiciones en relación al cese de la medida de acogimiento familiar y al apoyo y supervisión del acogimiento familiar.

La falta de un decreto específico que regule la materia había impedido avanzar hasta ahora de forma conjunta y paralela en los tres Territorios Históricos, y, como consecuencia de ello, había generado cierto vacío jurídico en lo que se refiere a la definición y el establecimiento de criterios, directrices y pautas procedimentales.

Todo ello se considera necesario para **clarificar** las distintas actuaciones y fases a desarrollar por las Diputaciones Forales a lo largo de todo el procedimiento de acogimiento familiar de las personas menores de edad que se encuentren bajo su tutela o guarda; tanto con carácter previo a la formalización de la medida de acogimiento familiar adoptada como durante toda la vigencia de la misma y a su término.

El nuevo Decreto acomete en un **único texto normativo** de aplicación para el conjunto del territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi el desarrollo de las disposiciones relativas a la medida de acogimiento familiar contempladas en la normativa legal –tanto estatal como autonómica– en materia de atención y protección a la infancia y a la adolescencia.

En la elaboración de dicha norma se ha tomado en consideración la **experiencia que acumulan las tres Diputaciones Forales** en el estudio y la valoración de la adecuación de las personas que se ofrecen para el acogimiento familiar; en la prestación de medidas, programas, recursos o servicios de asesoramiento, formación y apoyo a la persona menor de edad acogida, a la persona o familia acogedora y a la propia familia de origen; y en las actuaciones que realizan para la selección de las personas acogedoras que se consideren más apropiadas para el acogimiento de la persona menor de edad, atendiendo a sus circunstancias particulares, así como para la formalización de la medida de acogimiento familiar que se considere más adecuada en atención al interés superior de la niña, del niño o adolescente.

El **acogimiento familiar**, atendiendo a la duración y objetivos del acogimiento familiar, puede presentar las siguientes modalidades:

- **Acogimiento familiar de urgencia**, dirigido principalmente a personas menores de seis años, en tanto se decide la medida de protección familiar que corresponda. La duración de esta modalidad de acogimiento no podrá superar, en ningún caso, el plazo de seis meses.
- **Acogimiento familiar temporal**, que tendrá carácter transitorio, bien porque de la situación de la persona menor de edad se prevea la reintegración en su propia familia, o bien en tanto se adopte una medida de protección que revista un carácter más estable, como el acogimiento familiar permanente o la adopción. La duración máxima de esta modalidad de acogimiento será de dos años, salvo que el interés superior de la niña, del niño o adolescente aconseje la prórroga de la medida por la previsible e inmediata reintegración familiar, o la adopción de otra medida de protección definitiva.
- **Acogimiento familiar permanente**, que se constituirá al finalizar el plazo de dos años en acogimiento temporal, una vez constatada la imposibilidad de la reintegración familiar, o bien directamente en casos de personas menores de edad con necesidades especiales o cuando las circunstancias de la persona menor de edad y de su familia así lo aconsejen. Las Diputaciones Forales podrán solicitar al Juez o a la Jueza que atribuya a las personas o familias acogedoras permanentes aquellas facultades de la tutela que faciliten el desempeño de sus responsabilidades, atendiendo, en todo caso, al interés superior de la niña, del niño o adolescente.

Además, atendiendo a la **vinculación** de la persona menor de edad con la persona o familia acogedora y a las características que presenten las mismas, el acogimiento podrá tener lugar bajo las siguientes modalidades:

- En familia **extensa** de la persona menor de edad, en aquellos casos en los que exista una relación de parentesco entre la familia o las personas acogedoras y la persona menor de edad.
- En familia **ajena**, que comprenderá todos aquellos supuestos no incluidos en la modalidad de acogimiento en familiar extensa.

En cualquier caso, el acogimiento en familia ajena podrá ser especializado y profesionalizado, siempre y cuando concurren las circunstancias y requisitos previstos en el presente Decreto. Se considera **acogimiento familiar especializado** aquel que se desarrolla en una familia ajena en la que, al menos, uno de sus miembros dispone de cualificación, experiencia y formación específica para desempeñar esta función respecto de personas menores de edad con necesidades o circunstancias especiales. El Decreto se estructura en trece capítulos, que se completan con dos disposiciones adicionales, una disposición transitoria y una disposición final.

Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

EL GOBIERNO ENVÍA AL PARLAMENTO EL INFORME DE EVALUACIÓN INTEGRAL DE LAS POLÍTICAS DE VIVIENDA 2017

El Consejo de Gobierno ha tomado conocimiento del Informe de Evaluación Integral de las Políticas de Vivienda 2017, presentado por el consejero Iñaki Arriola, y ha acordado su remisión al Parlamento Vasco. El documento, de 120 páginas, recoge un análisis pormenorizado del grado de cumplimiento anual de los objetivos, líneas estratégicas y actuaciones fijadas en el Plan Estratégico vigente.

Este escrutinio que desarrolla el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda a través del Observatorio Vasco de la Vivienda es actualmente el único dispositivo de evaluación de políticas de vivienda que existe a nivel estatal. Su elaboración anual viene establecida en los Planes Directores de Vivienda, de carácter cuatrienal, y tiene como finalidad la mejora y perfeccionamiento de dichas políticas de forma permanente, así como rendir cuentas de sus resultados a la ciudadanía y a los agentes que operan en este ámbito.

El documento recoge, de forma sintética, los resultados de la evaluación integral de las políticas de vivienda en 2017 y, en particular, del Programa de Vivienda de ese ejercicio, y muestra un resumen de los resultados obtenidos en un periodo que abarca los últimos cinco años. En este sentido, la promoción del alquiler y la rehabilitación de viviendas fueron las líneas prioritarias de intervención en el ejercicio evaluado, en un entorno de lenta superación de los efectos, todavía visibles, de la última recesión económica.

A su vez, la puesta en marcha y desarrollo de la Ley de Vivienda de 2015 ha incidido de manera decisiva en la estrategia vasca en este ámbito, señalando nuevos focos de atención y estudio, y determinando nuevos requerimientos y obligaciones de acuerdo a la función social de la vivienda.

El contenido íntegro del Informe de Evaluación Integral de las Políticas de Vivienda 2017, tras su remisión al Parlamento, será accesible en la página web del Observatorio Vasco de la Vivienda.

Educación

6 MILLONES DE EUROS EN SUBVENCIONES A LOS AYUNTAMIENTOS PARA MEJORAS EN CENTROS EDUCATIVOS (UDALAGUNTZA-2018)

- **La convocatoria Udalaguntza subvenció el pasado año 260 obras a realizar en 170 centros educativos ubicados en edificios de titularidad municipal**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas para la financiación de los gastos destinados para la ejecución de obras en edificios de propiedad municipal en los que funcionan centros docentes dependientes de la administración educativa. Esta convocatoria, conocida con el nombre *Udalaguntza-2018*, cuenta con un importe global de 6.000.000 euros.

Podrán acogerse a la convocatoria *Udalaguntza-2018* aquellos ayuntamientos de Euskadi que presenten sus proyectos de obras de mejora en centros docentes de las características anteriormente citadas. Las obras susceptibles de ser financiadas a través de esta convocatoria habrán de iniciarse entre el 1 de enero de 2018 y el 31 de agosto de 2019 y deberán estar finalizadas antes del 31 de diciembre de 2019.

La subvención del Departamento de Educación cubrirá el 60% del presupuesto de aquellas obras aprobadas por la comisión de valoración, con un importe máximo no superior a 360.000 euros por cada solicitud. El 40% restante lo asume el ayuntamiento que presenta el proyecto. Por tanto, a aquellas solicitudes cuyo presupuesto aprobado por la comisión de valoración sea superior a 600.000 euros, se les reconocerá la ayuda teniendo en cuenta esa limitación.

Obras de accesibilidad

Se trata, en numerosas ocasiones, de obras de mejora de la accesibilidad a los edificios educativos, o incluso de actualización y adecuación de sus instalaciones, tales como: sustituciones de la carpintería interior o exterior; reformas de fachada; pavimentación de patios y zonas de recreo; actuaciones para la mejora de la eficiencia energética; redistribución de espacios; renovación de cubiertas; actualización de instalaciones eléctricas; reparación de aseos y saneamientos; o reforma de instalación de calefacción, entre muchas otras actuaciones, que contribuyen de manera muy directa a la mejora de la calidad de la enseñanza.

No se consideran financiables dentro de esta convocatoria las obras de primer establecimiento, conservación y mantenimiento del edificio.

La convocatoria Udalaguntza nace de la coordinación entre el Departamento de Educación del Gobierno Vasco y las corporaciones locales en las actuaciones

de mejora y actualización de las instalaciones educativas de titularidad municipal. Esta cooperación permite, además, la optimización de los recursos públicos y la rentabilización al máximo de los esfuerzos y actuaciones realizadas por cada administración.

Los ayuntamientos de Euskadi que deseen acogerse a la convocatoria Udalaguntza 2018 tendrán un plazo de un mes para presentar sus proyectos, junto con la documentación requerida, a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOPV.

La convocatoria Udalaguntza del pasado año (Udalaguntza 2017) subvencionó un total de 260 obras a realizar en 170 centros públicos de Infantil y Primaria, ubicados en 87 municipios de Euskadi.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA SUBVENCIÓN DIRECTA DE 40.000 EUROS PARA TTAP, REVISTA DIGITAL EN EUSKERA

- **La red Tokikom que aglutina a los medios de comunicación locales en euskera es la promotora de este proyecto innovador**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, en su sesión de hoy, una subvención directa de 40.000 euros para la empresa Tokikom con el fin de apoyar económicamente la puesta en marcha de Ttap, revista digital en euskera creada recientemente. Tokikom aglutina a los medios de comunicación locales en euskera y a través de esta iniciativa ha puesto en marcha un proyecto innovador dentro del periodismo en euskera.

La nueva revista digital Ttap ofrece contenidos para ver, escuchar y leer a través de teléfonos móviles y tabletas. Según explican desde Tokikom, el objetivo es que, “aunque no se disponga de mucho tiempo, se pueda ver la revista de arriba abajo en un cuarto de hora”. “En lo relativo al contenido, trataremos temas cercanos, para ser consumidos rápida y cómodamente. Tendrá dieciséis páginas o pantallas y se podrá leer en un cuarto de hora. Quien quiera profundizar en los contenidos siempre tendrá la oportunidad de hacerlo, a través de piezas audiovisuales”, afirman desde Tokikom.

En opinión del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, el impulso a los medios de comunicación en euskera y la oferta de contenidos atractivos para las y los vascohablantes es fundamental de cara a promocionar el uso del euskera. Asimismo, el apoyo a las iniciativas en euskera en el entorno digital es prioritario dentro de las políticas del Gobierno Vasco.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA SUBVENCIÓN DIRECTA DE 20.000 EUROS PARA GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA CON EL FIN DE APOYAR INICIATIVAS EN FAVOR DEL EUSKERA EN TOLOSALDEA

- **Gracias a esta subvención, promoverá la actividad cultural en euskera en la comarca y se apoyará la formación de la Mesa del Euskera**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy una subvención directa de 20.000 para Galtzaundi Euskara Taldea. El objetivo es desarrollar el programa 'Tolosaldeko Euskalgintzaren eskualdetze prozesua: antolaketa, eragin esparruak eta Tolosaldeko Euskararen Mahaia' (La estructuración de la iniciativa social en torno al euskera en la comarca: organización, ámbitos de actuación y la Mesa del Euskera en Tolosa). La finalidad de dicha asociación es impulsar el euskera en la comarca y, a tal efecto, consideran fundamental desarrollar el citado programa.

La asociación Galtzaundi definió dos objetivos principales de cara a 2018: promover la difusión y reestructuración de Galtzaundi Euskara Taldea en la comarca y formar la Mesa del Euskera de Tolosaldea. El objetivo de la subvención aprobada hoy por el Consejo de Gobierno es, precisamente, apoyar económicamente estos objetivos.

Galtzaundi Euskara Taldea inició un proceso de reflexión en 2016 para debatir en torno a la situación del euskera en Tolosaldea y definir objetivos y estrategias de futuro. Partiendo de dichas reflexiones, puso en marcha un proyecto piloto en 2017: el denominado 'Tolosaldeko euskalgintzaren eskualdetze prozesua: antolaketa, eragin esparruak eta Tolosaldeko Euskararen Mahaia' (La estructuración de la iniciativa social en torno al euskera en la comarca: organización, ámbitos de actuación y la Mesa del Euskera en Tolosa). Los objetivos definidos para 2018 fueron los siguientes:

- Tolosaldea como pulmón del euskera: Impulso a las políticas lingüísticas en la comarca a fin de garantizarlo.
- Estructurar y organizar Galtzaundi Euskara Taldea en los 28 pueblos de Tolosaldea: pueblo a pueblo, trabajando de forma coordinada y eficaz.
- Cooperación entre distintos agentes: Crear un lugar de reunión para todos los agentes implicados en la actividad cultural en euskera de Tolosaldea (instituciones públicas o agentes sociales organizados), en el que se acordarán las políticas lingüísticas comarcales en pro del euskera y se definirán las funciones de cada cual y las estrategias de coordinación.

- Desarrollar e intentar implantar un modelo de cooperación entre distintas instituciones de carácter diverso.
- Analizar una estructuración permanente para que la ejecución de las líneas anteriores sea más eficaz.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO SUFRAGARÁ PARCIALMENTE LAS OBRAS DE ACONDICIONAMIENTO DEL TEATRO BALNEARIO DE KUARTANGO A TRAVÉS DE UNA SUBVENCIÓN DE 10.000 EUROS

- **Se trata de un edificio de finales del siglo XIX cuyo ámbito de influencia se extiende al conjunto de la cuadrilla de Añana, donde no existen dotaciones similares**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy una subvención de 10.000 euros para financiar parcialmente las obras de acondicionamiento del Teatro Balneario de Kuartango. El objetivo de esta ayuda económica es impulsar esta dotación cultural cuyo ámbito de influencia se extiende al conjunto de la cuadrilla de Añana, donde no existen equipamientos similares.

El Ayuntamiento de Kuartango es el titular de esta instalación pública, que históricamente ha sido conocida como el Antiguo Balneario de Zuhatzu-Kuartango. Se trata de un edificio de finales del siglo XIX en el que desde 2015 se han realizado diferentes trabajos de reforma. Una de las zonas donde se ha efectuado una primera adecuación interior es el teatro, si bien aún son necesarias una serie de actuaciones para su uso como espacio escénico para el desarrollo de actividades culturales de artes escénicas.

El Ayuntamiento ha presentado un presupuesto de gastos de 14.600,00 euros (más IVA), para la financiación de las obras de acondicionamiento en este espacio. El Departamento de Cultura y Política Lingüística sufragará parcialmente estos trabajos de acondicionamiento a través de una subvención de 10.000 euros.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO PONE EN MARCHA LA PRÓXIMA EDICIÓN DE KULTURA ONDAREA SARIA, UN PREMIO QUE BUSCA PONER EN VALOR ENTRE LA JUVENTUD EL PATRIMONIO CULTURAL

- **Los grupos de estudiantes participantes en el proyecto deben elaborar vídeos de entre 3 y 10 minutos sobre esa temática**

El Gobierno Vasco ha aprobado en su sesión de hoy la orden a través de la cual se convoca y regula la iniciativa Kultura Ondarea Saria. El objetivo de este premio es fomentar la iniciativa, innovación, capacidad emprendedora, creatividad y el desarrollo social de la actividad educativa relacionada con el conocimiento y la puesta en valor del Patrimonio Cultural Vasco en cualquiera de sus formas, tanto materiales como inmateriales. El presupuesto destinado a la organización de este premio es de 30.000 euros.

La del próximo 2019 será la quinta edición de Kultura Ondarea Saria, que tiene entre sus objetivos:

- Fomentar la cultura innovadora y el reconocimiento al esfuerzo por investigar, recuperar y construir el conocimiento sobre el Patrimonio Cultural Vasco.
- Dar a conocer el Patrimonio Cultural Vasco desde y para el Sistema Educativo Vasco.
- Apoyar la puesta en marcha de iniciativas educativas innovadoras.
- Reconocer el papel de la juventud en la puesta en valor y construcción del conocimiento vinculado al Patrimonio Cultural Vasco.
- Fomentar entre la juventud la utilización de herramientas tecnológicas para crear contenidos culturales y educativos de dominio público.

En este proyecto participan alumnos y alumnas de 3º y 4º de Educación Secundaria Obligatoria, 1º de Bachillerato y de Ciclos Formativos de Grado Medio. Los grupos participantes en el proyecto deben elaborar vídeos de entre 3 y 10 minutos. Las y los alumnos deben elaborar un relato en torno a un tema específico empleando técnicas audiovisuales, trabajando en equipo y adoptando una perspectiva innovadora en torno al patrimonio.

En la edición de 2018 fueron premiados los alumnos y alumnas del Instituto Minas de Barakaldo, Maristak Durango Ikastetxea y, finalmente, el Instituto Bidebieta de Donostia-San Sebastián. Además, Maristak Ikastetxea recibió una mención especial por haber sido el centro que más vídeos envió. Las y los ganadores viajaron a Nápoles como premio.